AGINTERA : **NOR-NORI-NORK**

(Singularrean)

	Niri	Zuri	Hari	Guri	Zuei	Haiei
Zuk	iezadazu		iezaiozu	iezaguzu		iezaiezu
Hark	biezat	biezazu	biezaio	biezagu	biezazue	biezaie
Zuek	iezadazue		iezaiozue	iezaguzue		iezaiezue
Haiek	biezadate	biezazute	biezaiote	biezagute	biezazuete	biezaiete

1.- Ez _____ gezurrik esan, berehala harrapatzen dizut eta.(Zuk niri)

2.- Mikel, esan _____ aitari telefonoa hartzeko.(Zuk hari)

3.- Sinets _____, ez dizuet gezurrik esan. (Zuek niri)

4.- Jauna, dirurik gabe gaude, lagun _____, mesedez! (Zuk guri)

5.- Eman _____ eskatu dizuna. (Zuk hari)

6.- Adizue, lagun _____ horri! Ez duzue ikusten itotzen ari dela? (Zuek hari)

7.- Ez zaitez horren zekena izan! Igo _____ soldata langileei.(Zuk haiei)

8.- Kepa, luza _____ eskua lagunari!

LIVEWORKSHEETS

(Pluralean)

	Niri	Zuri	Hari	Guri	Zuei	Haiei
Zuk	iezazkidazu		iezazkiozu	iezazkiguzu		iezazkiezu
Hark	biezazkit	biezazkizu	biezazkio	biezazkigu	biezazkizue	biezazkie
Zuek	iezazkidazue		iezazkiozue	iezazkiguzue		iezazkiezue
Haiek	biezazkidate	biezazkizute	biezazkiote	biezazkigute	biezazkizuete	biezazkiete

1.- Utz _____ zure betaurrekoak; nireak etxean ahaztu zaizkit. (Zuk niri)

2.- Aizu, garbi _____ zapatak, mesedez; gauerako behar ditu. (Zuk hari)

3.- Erakuts _____ esku horiek ....., zikin-zikinak dituzu. (Zuk niri)

4.- Lurdez, eman _____ goraintziak nire partetik lagun guztiei.(Zuk haiei)

5.- Pasa _____ betaurrekoak. (Zuk niri)

6.- Eman _____ goraintziak Karmeleri. (Zuk hari)

7.- Itzul _____ lehenengoan utzi nizkizun liburuak. (Zuk niri)

LIVEWORKSHEETS